



**55 DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA**  
**55 AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS**



**Gastuen Egoera-orria**  
*El Estado de Gastos*

Administrazio Orokorra  
Administración General

EGOERA-ORRIA - GASTUAK  
ESTADO DE - GASTOS

ORGANIKOA / ORGANICA

10055 Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

10055 Agencia Vasca de Protección de Datos

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

1113 Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

1113 Agencia Vasca de Protección de Datos

EUROAK / EUROS

ATAL SEC.	PROG. PROG.	ZERB. SERV.	KON. CONC.	PART. PART.		PARTIDAK PARTIDAS	GUZTIZKOAK TOTALES
55					DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS		2.728.148
55	1113				Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Agencia Vasca de Protección de Datos		2.728.148
55	1113	01			Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Agencia Vasca de Protección de Datos		2.728.148
55	1113	01	4		Eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak Transferencias y Subvenciones para Operaciones Corrientes		2.713.148
55	1113	01	41		EAEko administ. publiko gisa sailkat. dauden bestelako entitateentzat (KSE) A otras entidades clasificadas Administraciones Públicas CAE (SEC)		2.713.148
55	1113	01	412		Bestelako entitateentzat A otras entidades		2.713.148
55	1113	01	412	19/4559	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Agencia Vasca de Protección de Datos.	2.713.148	
55	1113	01	7		Kapital-eragiketarako transferentziak eta dirulaguntzak Transferencias y Subvenciones para Operaciones de Capital		15.000
55	1113	01	71		EAEko administ. publiko gisa sailkat. dauden bestelako entitateentzat (KSE) A otras entidades clasificadas Administraciones Públicas CAE (SEC)		15.000
55	1113	01	712		Bestelako entitateentzat A otras entidades		15.000
55	1113	01	712	19/4559	Datuak Babesteko Euskal Bulegoa. Agencia Vasca de Protección de Datos.	15.000	
					<b>GUZTIRA TOTAL</b>	<b>2.728.148</b>	<b>2.728.148</b>

**Gastuen Laburpenak**  
**Resúmenes de Gastos**



Administrazio Orokorra  
Administración General

LABURPENA: ATALA; KAPITULUA - GASTUAK  
RESUMEN: SECCIÓN; CAPÍTULO - GASTOS

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

10055 Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

10055 Agencia Vasca de Protección de Datos

MILAKA / MILES

ATAL SEC.	KAP. CAP.		2024	%GUZT. %TOT.	2023	%GUZT. %TOT.	ALDEA DIFERENCIA	%
55		DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS	2.728,1	100,0	2.665,2	100,0	62,9	2,4
55	4	Eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak Transferencias y Subvenciones para Operaciones Corrientes	2.713,1	99,5	2.650,2	99,4	62,9	2,4
55	7	Kapital-eragiketarako transferentziak eta dirulaguntzak Transferencias y Subvenciones para Operaciones de Capital	15,0	0,5	15,0	0,6	0,0	0,0
		GUZTIRA TOTAL	2.728,2	100,0	2.665,2	100,0	63,0	2,4

Administrazio Orokorra  
Administración General

LABURPENA: ATALA; PROGRAMA ETA KAPITULUA GASTUAK  
RESUMEN: SECCIÓN; PROGRAMA Y CAPÍTULO GASTOS

ORGANIKOA / ORGANICA

EKONOMIKOA / ECONOMICA

FUNTZIONALA / FUNCIONAL

10055 Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

10055 Agencia Vasca de Protección de Datos

MILAKA / MILES

ATAL SEC.	PROG. PROG.		GUZTIRA TOTAL	KAPITULUAK CAPITULOS								
				1 Pertsonal gastuak Gastos de personal	2 Funtzion. gastuak Gastos funciona.	3 Gastu finantzarioak Gastos financie.	4 Transf. arruntak Transfe. corrientes	6 Inbertsio errealak Inversio. reales	7 Kapital transf. Transfe. capital	8 Aktibo f. gehikuntza Aumento act.finan.	9 Pasibo f. murrizketa Dism. pas. financier.	
55		Datuak Babes.E.Bule. A.V.Prot.Datos	2.728,1	0,0	0,0	0,0	2.713,1	0,0	15,0	0,0	0,0	
55	1113	Datuak Bab.Eusk.Bul. A.V.Protención Datos	2.728,1	0,0	0,0	0,0	2.713,1	0,0	15,0	0,0	0,0	
		GUZTIRA TOTAL	2.728,2	0,0	0,0	0,0	2.713,2	0,0	15,0	0,0	0,0	



**Memoria, Aurrekontuak eta Pertsonalaren eranskina**  
***Memoria, Presupuestos y Anexo Personal***

## **DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN MEMORIA 2024RAKO**

### **MEMORIA DE LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS PARA EL AÑO 2024**

#### **1. SARRERA**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa (aurrerantzean DBEB) otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren bidez sortu zen (EHAA, 2004ko martxoaren 4koa, 44. zk.). Lege horrek xedatzen duenez, DBEB zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoak ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe beteko ditu bere eginkizunak.

Datu pertsonalen babesaren arloko arau-esparrua zedarrizten du batik bat 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarenak, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duenak (Erregelamendu Orokorra). Erregelamendu hori 2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikatu behar da osorik.

Erregelamendu Orokorrak, 57. eta 58. artikuluen bitartez, funtsean, kontrol-agintaritzek bete behar dituzten eginkizun eta ahalen sorta zabala ezartzen du. Gainera, agintaritza horiek bitarteko egokiak izan beharko dituzte euren independentzia behar bezala bermatuta egon dadin, independentzia hori baita oinarritzko eskubidearen babes egokirako funtsezko printzipioetako bat.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak (3/2018 Lege Organikoa) barneko zuzenbidea Erregelamendu Orokorren arabera egokitzea du helburu. Lege horrek, VII. tituluko II. kapituluan, Datuak babesteko agintaritza autonomikoak izenekoak aztertzen ditu.

Era berean, maiatzaren 26ko 7/ 2021 Lege Organikoa, arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zehapen penalak betearazteko tratatutako datu pertsonalak babesteari buruzkoa aplikatu behar da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/680 (EB) Zuzentarauaren transposizio gisa.

Arau horiek batera aplikatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan barne araudia ere egokitu behar izan da. Horren haritik, Datu Pertsonalak Babesteko Legearen proiektuak, orain izapide-fasean dagoen horrek, Euskal Autonomia Erkidegoan datu pertsonalen babesaren arloan gaur egun indarrean dagoen araudia –2/2004 Legean eta lege hori garatzeko xedapenetan jasotzen dena– 2016/679 (EB) Erregelamendura, 3/2018 Lege Organikora eta 7/2021 Lege Organikora egokitzea eta aurreko horien xedapenak osatzea du helburu.

#### **2. DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN JARDUERAK**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako misio hau du: «Euskal administrazio publikoentzat eta herritarrentzat erreferentziatzeko kontrol agintaritza independentea izatea,

#### **1. INTRODUCCIÓN**

La Agencia Vasca de Protección de Datos (AVPD), creada por la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos (LAVPD, BOPV N. 44, de 4 de marzo de 2004) es un ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones.

El marco normativo actual en materia de protección de datos personales viene determinado, principalmente, por el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos, y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (RGPD), aplicable plenamente desde el 25 de mayo de 2018.

EL RGPD establece, esencialmente a través de sus artículos 57 y 58, un amplio elenco de funciones y potestades que deberán desarrollar las autoridades de control, debiendo éstas, además, estar dotadas de medios que garanticen adecuadamente su independencia, que se constituye como un principio esencial de garantía de la adecuada protección del derecho fundamental.

La Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (LOPDyGDD), tiene el objeto de adaptar el derecho interno al RGPD, y dedica el Capítulo II de su Título VII a las Autoridades Autonómicas de protección de datos.

Asimismo, resulta de aplicación la Ley Orgánica 7/2021, de 26 de mayo, de protección de datos personales tratados para fines de prevención, detección, investigación y enjuiciamiento de infracciones penales y de ejecución de sanciones penales (LOPD Penal), como trasposición de la Directiva (UE) 2016/680 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016.

La aplicación conjunta de dichas normas ha hecho necesaria una adecuación de la normativa interna en la Comunidad Autónoma de Euskadi. En ese sentido, el Proyecto de Ley de Protección de datos personales, en fase de tramitación, persigue adaptar la actual normativa de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de protección de datos, contenida en la Ley 2/2004 (LAVPD) y sus disposiciones de desarrollo, al Reglamento (UE) 2016/679 (RGPD), a la Ley Orgánica 3/2018 (LOPDyGDD), y a la Ley Orgánica 7/2021 (LOPD Penal), y completar sus disposiciones.

#### **2. ACTIVIDADES DE LA AVPD**

La AVPD tiene como Misión la de ser “la Autoridad de Control Independiente de referencia para las administraciones públicas vascas y la ciudadanía en



personen pribatutasunari eta intimitateari dagokienez, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea errespetatu dezaten zainduz».

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Ikuspenaren xedea da lortzea gizarte bat, non herritarrek datu pertsonalen esparruan dituzten eskubideak ezagutzen dituzten eta jakin dakiten nola izan behar den tratatua beraien informazio pertsonala; non herritar orenen eskubide guztiak errespetatuak diren eta datu babeserako eskubidearekin ponderaturik erabiliak diren, eta non euskal administrazio eta erakunde publikoek modu leialean, legearen arabera, arduratsu eta seguru jokatzuz tratatzen dituzten datu pertsonalak eta horiekin elkarreragin.

Hori guztia erdiesteko, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak honako balio hauek ditu gidari: bere eskumenez baliatzea independentziarekin, herritarrenganako hurbiltasuna eta administrazio publikoekiko lankidetzeta, instituzioa osatzen duten pertsonen garapena eta asebetetzea, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntza.

Honako hauek dira bere eskudantzia nagusiak:

1. Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea.
2. Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea, eta hala badagokio, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legeriaren printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea.
3. Ukituen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea eta datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonari.
4. Ikuskapen-jarduera egikaritzea eta, beharrezkoa bada, zehatzeko ahala ere bai.
5. Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeak dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea.
6. Administrazio publikoek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.

Eginkizun eta ahal horiek guztiak sailkatzeko, bi multzo nagusi bereizi dira. Batetik, ohiko jarduerak daude, hau da, Bulegoak lege araututako ahalak baliatzeko burutu behar dituenak; eta, beste alde batetik, datu babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak daude. Azken horietarako, hainbat jomuga estrategiko ezarri dira.

## 2.1. Legez araututako ahalak baliatzeko ohiko jarduerak.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol-agintaritzaren izaera duenez, hainbat eginkizun burutzen ditu modu jarraitu eta iraunkorrean, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak esleitzen dizkion eginkizunetatik eratorriak.

### Kontrol eginkizuna.

- Eskubideak babesteko prozedurak izapidetzea. Herritarrek datuetarako irispiderako eskubidea, datuak zuzentzekoa, tratamenduaren aurka egitekoa,

cuanto a la privacidad e intimidad de las personas, velando por el respeto del derecho fundamental a la Protección de Datos Personales”.

La Visión de la AVPD está dirigida a lograr una sociedad en la que la ciudadanía conozca sus derechos y entienda cómo debe ser tratada su información personal, en la que todos los derechos de las personas sean respetados y aplicados de forma ponderada con el derecho a la protección de datos y donde las administraciones e instituciones públicas vascas traten e interoperen con los datos personales de forma leal, legal, responsable y segura.

Para lograrlo, los Valores en que se sustenta la AVPD son la independencia en el ejercicio de sus competencias, la cercanía con la ciudadanía y la cooperación con las administraciones públicas, así como el desarrollo y satisfacción de las personas que componen la Institución, la mejora continua y la innovación.

Sus principales atribuciones son las siguientes:

1. Velar por el cumplimiento de la legislación sobre protección de datos y controlar su aplicación.
2. Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos, así como dictar, en su caso las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de protección de datos.
3. Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados; además de proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.
4. Ejercer la actividad inspectora y, en su caso, la potestad sancionadora.
5. Velar por el cumplimiento de las disposiciones sobre la función estadística pública.
6. Atender a las consultas que en materia de protección de datos de carácter personal le formulen las administraciones públicas, instituciones y corporaciones, así como otras personas físicas o jurídicas.

Todas esas funciones y potestades se han clasificado en dos grandes grupos. Por un lado, están aquellas actividades permanentes que se desarrollan en el ejercicio de las potestades regladas, y, por otro, aquellas otras actividades de fomento del derecho a la protección de datos, para las cuales se han establecido una serie de metas estratégicas.

## 2.1. Actividades permanentes para el ejercicio de potestades regladas.

Por su carácter de Autoridad de Control, la Agencia Vasca de Protección de Datos ejerce, de forma continua y permanente, una serie de actividades derivadas de las funciones que le otorga la Ley 2/2004, de 25 de febrero.

### Función de Control.

- Tramitación de Procedimientos de Tutela de Derechos, como consecuencia del ejercicio de los derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión

ezereztekoa («ahaztua izateko eskubidea»), tratamendua mugatzekoa, datuak transferitzekoa eta banakako erabakien objektu ez izatekoa egikaritzearen ondoriozko prozedurak dira.

- Salaketa-prozedurak izapidetzea. Datu babesaren araudiaren aurkakoak izan daitezkeen portaerengatik aurkeztutako erreklamazioei dagozkien prozedurak dira.
- Informazio-eginbideak izapidetzea. Ofizios irekitzen dira datu-babesaren arloko araudiaren aurkakoak izan daitezkeen egintzengatik.
- Administrazio publikoen arau-hauste eta zehapen espedienteak izapidetzea, jardueraren batek datu babesaren arloko araudia urratzen duelako susmorik dagoenean.

### **Ikuskaritza eginkizuna.**

- Frogatzeko ikuskapenak egitea, kontrol-espediente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- Prebentzioko ikuskapenak egitea, diagnostiko eta egokitzapen xedearekin.

### **Aholkularitza eginkizuna.**

- Otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorreari buruzko proiektuen gaineko legezketasun txostenak egitea eta nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko txostenak egitea.
- Bestelako araugintza-proiektuei buruz eskatzen dituzten legezketasun txostenak bidaltzea, datu pertsonalak babesteko eskubideari dagokionez.
- Administrazio publikoek eta pertsona pribatuek, fisikoek nahiz juridikoek datu pertsonalen babesaren arloko gai jakinei buruzko zalantzak argitzeko eskatuz egindako kontsultei erantzuteko irizpen juridikoak egitea.

### **Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa.**

- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistroa, Erregelamendu Orokorra ezarri ostean.

### **2.2. Datu babeserako eskubidea sustatzeko jarduerak.**

Datuen babeserako eskubidea sustatzeko ekintzak, eta etengabeko hobekuntza eta berrikuntzarakoak, beti ere Bulegoak esleitura dituen ahalen esparruan, bere jardueraren ardatzak, administrazioaren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak zabaltzeari, hedatzeari eta ezagutzeari dagokionez.

Horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak pertsonen eskubideak eta erakundeen betebeharrak sustatzen ditu. Horrez gain, aholkularitza aditua ematen du eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzen du, gatazkak konpontzen ditu (eskubideak babestea, arau-haustek deklaratzeko eta abar) eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan jardunbide egokiak sustatzen

(«derecho al olvido»), limitación del tratamiento, portabilidad y de no ser objeto de decisiones individualizadas. por parte de la ciudadanía.

- Tramitación de Procedimientos de Denuncia, correspondientes a reclamaciones presentadas por conductas que pudieran ser contrarias a la normativa sobre protección de datos.
- Tramitación de Diligencias Informativas iniciadas de oficio por hechos que pudieran ser contrarios a la normativa sobre protección de datos.
- Tramitación de expedientes de infracción de las administraciones públicas y de expedientes sancionadores, cuando existan indicios de que alguna actuación pudiera vulnerar la legislación sobre Protección de Datos.

### **Función Inspectora.**

- Efectuar inspecciones probatorias, relacionadas con la instrucción de expedientes de control.
- Efectuar inspecciones preventivas, con una finalidad de diagnóstico y adecuación.

### **Función Consultiva.**

- Emisión de informes de legalidad sobre proyectos de disposiciones generales que desarrollan la Ley 2/2004, de 25 de febrero, así como sobre disposiciones normativas que determinen estadísticas de respuesta obligatoria.
- Emisión de los informes de legalidad que hayan sido solicitados sobre otros proyectos normativos, en lo que afecta al derecho a la protección de datos de carácter personal.
- Emisión de dictámenes jurídicos en respuesta a las consultas formuladas sobre cuestiones concretas en relación con la protección de datos de carácter personal, tanto por administraciones públicas como por personas físicas o jurídico-privadas.

### **Registro de Delegados de Protección de Datos.**

- Registro de Delegados de Protección de Datos tras la aplicación del RGPD.

### **2.2. Actividades para el fomento del derecho a la protección de datos.**

Las actividades orientadas al fomento del derecho fundamental a la Protección de Datos, así como a la mejora continua y la innovación en el ejercicio de sus competencias constituyen el eje de actuación en cuanto a la divulgación, difusión y conocimiento de los derechos y deberes de la Administración y de la ciudadanía.

Para ello la AVPD promueve los derechos de las personas y las obligaciones de las organizaciones. También proporciona asesoramiento experto y controla el cumplimiento de las obligaciones, resuelve conflictos (tutela de derechos, declaración de infracciones, etc.) y promueve las buenas prácticas en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

ditu.

Entitatearen jarduera gidatzen duten erronkak lau ardatz nagusitan oinarritzen dira. Hona hemen ardatz horiek:

#### **Ardatza: Herritarrak**

Lortzea herritarrek balia dezatela datuen babeserako eskubidea, eskubidearen berri dutelako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa dagoela dakitelako eta eskubideez baliatzea erraza eta ezaguna delako.

#### **Ardatza: Administrazio publikoak**

Lortzea administrazio publikoek datuen babeserako eskubidea bete dezatela.

#### **Ardatza: Aliatu estrategikoak**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak dituen helburuak lortzen laguntzen duten aliantza estrategikoak izatea.

#### **Ardatza: Barne antolaketa**

Datuak Babesteko Euskal Bulegoko pertsonen kudeaketan eta lanbide-garapenaren esparruan hobekuntzak eta berrikuntzak egitea.

### **3. 2023AN BURUTUTAKO JARDUERA AIPAGARRIENAK**

2023an sustatzen jarraitu dugu datuak babesteko oinarritzko eskubidea, bai eta etengabeko prestakuntza eta berrikuntza ere, Bulegoaren eskumenak baliatuz.

Honako hauek dira egin diren jarduera aipagarrienak:

- Bulegoaren barne ezagutzaren kudeaketa eta zabalkunde-sistema sendotzea eta hobetzea.
- Datuen babesaren kultura, zabalkundea, ikerketa eta ezagutza sustatzea eta gizartean hedatzea.
- Datuak babesteko agintaritzen artean ditugun proiektu komunak garatzen jarraitzea eta lantaldeetan parte hartzea.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren lehentasunezko eta ohiko solaskideekiko harremanak sendotzea.
- Frogatzeko ikuskapenak egitea, espediente batzuen instrukzioarekin lotuta.
- Prozedurak izapidetzea eta irizpenak ematea.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta datu-babesari buruzko jarduerak sustatzea.
- Herritarrei zuzendutako hitzaldiak, mintegiak eta jardunaldiak ematea.
- Jarraitzea web-orrian irizpen juridikoak eta ebazpenak argitaratzen.
- Bulegoak ematen dituen zerbitzu publikoetara irispide elektronikoa modu efizienteago, efikazago eta gardenagoan izateko bidea emango duten azpiegitura

Los retos que orienta la actividad de esta entidad se basan en cuatro ejes principales:

#### **Eje: Ciudadanía**

Lograr que la ciudadanía pueda ejercer su derecho a la protección de los datos porque tiene conocimiento del derecho, de la AVPD, y puede hacerlo porque es sencillo y cercano.

#### **Eje: Administraciones públicas**

Lograr que las administraciones públicas den cumplimiento al derecho a la protección de datos.

#### **Eje: Aliados estratégicos**

Disponer de alianzas estratégicas que ayuden en la consecución de los objetivos de la AVPD.

#### **Eje: Organización interna**

Mejorar e innovar en la gestión y el desarrollo profesional de las personas de la AVPD.

### **3. PRINCIPALES ACTUACIONES REALIZADAS DURANTE 2023**

Durante 2023 se ha continuado con el fomento del derecho fundamental a la Protección de Datos, así como a la mejora continua y la innovación en el ejercicio de sus competencias.

Las principales actuaciones llevadas a cabo han sido las siguientes:

- Consolidar y mejorar el sistema de gestión y difusión del conocimiento interno de la Agencia.
- Promover el conocimiento, la investigación, la divulgación de la cultura de protección de datos y la difusión de la misma en la sociedad.
- Continuar con el desarrollo de proyectos comunes entre las diferentes Autoridades de Protección de Datos y participar en los Grupos de Trabajo.
- Consolidar las relaciones con los interlocutores preferentes y habituales de la AVPD.
- Efectuar inspecciones probatorias, relacionadas con la instrucción de expedientes.
- Tramitar procedimientos y emitir dictámenes.
- Impulsar actuaciones sobre transparencia, acceso a la información pública y protección de datos.
- Impartir conferencias, seminarios y jornadas orientados a la ciudadanía.
- Continuar con la publicación en la web de dictámenes jurídicos y resoluciones.
- Continuar con la puesta en marcha de infraestructuras y servicios que faciliten el acceso electrónico a los servicios públicos que presta la

eta zerbitzuak abian jartzen jarraitzea.

- Lanpostu-zerrenda egokitzea abian dauden arau-eskakizun berrietara.
- Legebiltzarrekiko eta beste erakunde parlamentario batzuekiko harremanak bultzatzea, datuen babesa aztertzeke autonomia-erkidegoko legerian.
- Kontzientziazio- eta trebakuntza-saioak sustatzea eta ematea, administrazio publikoei zuzenduta.
- Lanpostu hutsak betetzeko hautaketa prozesuak deitzea.

#### 4. 2024RAKO AURREIKUSITAKO JARDUERAK

##### 4.1. Jarduera iraunkorrak.

2024ko ekitaldian, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 2/2004 Legeak esleitzen dizkion kontrol eta ikuskatze eginkizunekin eta aholkularitza-eginkizunekin lotutako ohiko jarduera iraunkorrak –lehentxeago ere azaldu ditugun horiek– eta gaur egun izapidetzen ari den Datu Pertsonalak Babesteko Legearen proiektua Eusko Legebiltzarrean onartu ondoren esleituko zaizkionak nahiz DBEBko Zuzendaritza berria prestatzen ari den Plan Estrategikoan ezarrita daudenak garatzen jarraituko du.

##### 4.2. Helburu estrategikoak.

Lortu beharreko helburu horietako bat da jarraitzea indarrean dauden araudiek ekarritako berritasunak aztertzen, administrazio publikoek eta herritarrek jakin eta aurreikusi ditzaten hura aplikatzean egon daitezkeen zailtasunak, eta, horrela, behar diren neurri zuzentzaileak ezarri ahal izan ditzaten.

Horretarako, jarraitu behar da lege-arloan gertatu diren aldaketarik esanguratsuenak lantzen eta aldaketa horiek administrazio publikoei eta herritarrei jakinarazten.

Gainera, indarrean dagoen Europako eta estatuko araudia aplikatu behar denez eta, horrekin batera, Datu Pertsonalak Babesteko Legearen proiektua izapidetzen ari denez, DBEBren Estatutua egokitu beharko da eta, bestalde, dimensio berria eman ere gaur egun dauden giza baliabideei eta baliabide materialei. Horrenbestez, DBEBren egitura organikoa moldatu beharko da.

Horrez gain, ezin dugu alde batera utzi administrazio elektronikoa behin betiko ezartzea gure helburu behinenetako bat dela oraindik ere; horretarako, teknologia digitalen garapenak eta bilakaerak ematen dizkigun aukerak baliatuko ditugu, eta funtsezkoa izango da abian jartzea azpiegitura eta zerbitzu aproposak, administrazio eficienteagoa, efikazagoa eta gardenagoa gauzatzeko, gaur egungo lege esparruak agintzen dituen berme juridiko guztiekin.

Halaber, kontuan hartu beharko da Bulegoak zer nolako inguruabarretan betetzen dituen bere eginkizunak, gaur egun hainbat fenomeno puri-purian baitaude, adibidez adimen artifiziala edo ziberdelinkuentzia.

Agencia, de una manera más eficiente, eficaz y transparente.

- Adecuar la relación de puestos de trabajo a los nuevos requerimientos normativos en marcha.
- Impulsar relaciones con el Parlamento y otras instituciones parlamentarias para analizar la protección de datos en la legislación autonómica.
- Promover e impartir sesiones de concienciación y capacitación orientados a las AAPP.
- Convocar procesos selectivos para la cobertura de plazas vacantes.

#### 4. ACTUACIONES PREVISTAS PARA 2024

##### 4.1. Actuaciones permanentes.

En el ejercicio de 2024, la AVPD continuará desarrollando las actuaciones que ejerce de forma continua y permanente, ligadas a las funciones de control, inspectoras y consultivas que le otorga la actual normativa vigente y que han sido ya descritas anteriormente, y todas aquellas que le sean encomendadas tras la aprobación parlamentaria del Proyecto de Ley de Protección de datos personales, que está en fase de tramitación, así como las previstas en el Plan Estratégico desarrollado por la nueva Dirección de la AVPD.

##### 4.2. Objetivos estratégicos.

Dentro de los objetivos a lograr figura el de continuar con el análisis de las novedades que se presentan en el ámbito de las normativas en vigor, para que tanto las administraciones públicas como los ciudadanos puedan conocer y prever las dificultades en su aplicación y así aplicar las medidas correctoras que se precisen.

Para ello, es necesario seguir trabajando en los cambios más significativos que se han producido en el ámbito legal y ponerlos en conocimiento de las administraciones públicas y de la ciudadanía.

